

2024KO AZAROAREN 11KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko azaroaren 11n, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide eta Joxemai Ormazabal Sukia.

Maialen Amundarain Irizar zinegotziak bere ezin etorria adierazi du.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko urriaren 28an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 81 zenbakidun zerrenda HOGEITA HAMABOST MILA ETA BERROGEITA HAMABI euro ETA HOGEITA HAMAR zentimokoa (35.052,30 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- HIRIGOIEN KALEKO 56-58 ZENBAKIETAN KOKATUTAKO BIZITEGI-ERAIKINEKO BEHEKO SOLAIRUAN DAUDEN BERE JABETZAKO LOKALAK EUSKO JAURLARITZARI EROSTEA (AZALERA ESKUBIDEA).-

Udal honek, Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoak diren Lazkaoko Hirigoien kaleko 56-58 zenbakietako eraikinetako beheko solairuetan dauden lokalak erosteko interesa du.

Honakoak dira lokal hauen erregistro-datuak:

- 1) Deskribapena: Hiru zenbakiko finka, Hirigoien kaleko 56 eta 58 zenbakidun atarien artean dagoen beheko solairuko lokala, 133,90 m²-ko azalera duena.

Erregistroko inskripzioa: Tolosako 2 zenbakidun Jabetza Erregistroa, 1884. liburukia, Lazkaoko 87 liburua, 5359 zenbakidun finka.

Kargak: Kargarik gabe.

Katastroko erreferentzia: 6664158; 5176050 R.

- 2) Deskribapena: Laugarren finka: Hirigoien kaleko 58. zenbakiko atariaren eskuin aldean dagoen beheko solairuko lokala, 57,20 m²-ko azalera duena.

Erregistroko inskripzioa: Tolosako 2 zenbakidun Jabetza Erregistroa, 1884. liburukia, Lazkaoko 87 liburua, 5360 zenbakidun finka.

Kargak: Kargarik gabe.

Katastroko erreferentzia: 6664158; 5176051 C

Lazkaoko Udalak, enplegua sustatzeko helburuarekin, beharrezkotzat jotzen du interesdunen eskura jarri ahal izango diren bulegoak izatea, hasierako fasean enpresa-ekimenak martxan jartzen laguntzeko eta ahalbidetzeko.

Goiekirekin lankidetzan, zeregin horiek betetzeko, behar diren ekipamenduak dituzten bulegoak jarriko lirateke interesdun posibleen eskura.

Euskal Autonomia Erkidegoak dituen Hirigoien kaleko 56 eta 58 zenbakietako eraikinen beheko solairuetako lokalek, jarduera horiek ezarri ahal izateko behar diren baldintzak betetzen dituzte.

Txosten juridikotik ondoriozta daitekeenez, Udalak lokal horiek zuzenean erosi ahal izango ditu, lizitazio prozedurarik egin behar izan gabe.

Soroa Arquitectos S.L.P.-ko arkitektoa den Pedro Izaskunek, lokal hauen balorazio bat egin du Udalak hala eskatuta.

Bada aurretik Jon Ezenarro Zeberio arkitekto teknikoak egindako balorazio bat, Zehazki enpresarena hain zuzen. Balorazio horretatik ondorioztatzen da 56. zenbakiko lokalak, 146,92 m²-ko azalera eraikia duenak, 105.701,04 euroko balioa duela, eta 58. zenbakikoak, 64,35 m²-ko azalera eraikia duenak, 54.664,83 euroko balioa duela. Bi lokalen balioa beraz 160.365,87 eurokoa da.

Pedro Izaskun arkitektoak ontzat eman du aurreko balorazio hori.

Gaiaz eztabaidatu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

Lehena.- Lazkaoko Hirigoien kaleko 56-58 zenbakietako eraikinetako beheko solairuetan dauden lokalak, bere espedientean dagoen dokumentazioan zehaztutakoak, erostea. Erosketa prezioa EHUN ETA HIRUROGEI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA BOST euro eta LAUROGEITA ZAZPI zentimo (160.365,87 €) gehi BEZari dagokion HOGETA HAMAHIRU MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI euro ETA LAUROGEITA HIRU (33.676,83 €) zentimokoa da.

Bigarrenena.- Alkateari ahalmena ematea, erabakia behar bezala bete dadin, hartutako erabakiari dagozkion gainerako zehaztapenak egin ditzan.

Hirugarrenena.- 2024ko otsailaren 19an Tokiko Gobernu Batzordeak Lazkaoko Hiri-goien kaleko 56-58 zenbakietako eraikinetako beheko solairuetan dauden lokalak erosteko hartutako akordioa indargabetzen du akordio honek.

IV.- UDALAREN ONDAREZKO ASEGURUEN ETA ASEGURU PERSONALEN KONTRATUEN LEHEN LUZAPENA.-

Lazkaoko Udaleko Idazkariak, Udalaren ondarezko aseguru eta aseguru pertsonalen kontratuen lehen luzapena proposatu du.

Aseguru hauen kontratuak lehiaketa ireki bidez esleitu ziren eta ondorengo aseguru-etxeekin sinatu ziren:

- I. lotea:** Udalaren ondarea osatzen duten higieziinei (edukitzailea eta edukia) eta higigarriei egindako kalteen aseguru poliza, AXA SEGUROS GENERALES SOCIEDAD ANONIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS aseguru-etxearekin. Kontratuaren sinadura data: 2023/12/22.
- II. lotea:** Lazkaoko Udalak, jabari publikoko eta ondarezko jabetzako ondasunen titular eta zerbitzu publikoen emaile den aldetik, hirugarrenen aurrean izan dezakeen erantzukizun zibilaren/ondare-erantzukizunaren ondoriozko kalteen aseguru poliza, MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. aseguru-etxearekin. Kontratuaren sinadura data: 2023/12/22.
- III. lotea:** Lazkaoko Udaleko enplegatu publikoen eta hautetsien erantzukizun zibilaren aseguru poliza, WR BERKLEY EUROPE AG, SUCURSAL EN ESPAÑA aseguru-etxearekin. Kontratuaren sinadura data: 2023/12/22.
- IV. lotea:** Bizitza eta istripu polizak, hautetsien taldea, MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A. aseguru-etxearekin. Kontratuaren sinadura data: 2023/12/29.
- V. lotea:** Istripu polizak, bolondresen taldea, MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A. aseguru-etxearekin. Kontratuaren sinadura data: 2023/12/22.

Kontratu hauek urtebeterako izenpetu ziren eta urte beteko 3 luzapen egiteko aukera dago. Urtebeteko epea 2024ko abenduaren 31an beteko da eta hau ikusirik, Lazkaoko Udaleko Idazkariak 2024ko azaroaren 7ko data daraman idatzia aurkeztu du Udal honetan, bere aldetik aseguru hauen kontratuen urte beteko lehen luzapena egiteko proposamena eginez.

Hau guztia honela, Tokiko Gobernu Batzordeak, gaia aztertu ondoren, aho batez, Udalaren ondarezko aseguru eta aseguru pertsonalen kontratuak urte betez luzatzea erabaki du.

V.- GURUTZE GORRIARI DIRULAGUNTZA, DANAK KALTETUTAKO PERTSONEI BIDERATZEKO.-

2024ko urriaren 29an DANA batek penintsulako ekialdea eta hegoaldea astindu zituen, berrehundik gora hildako eta kalte ugari eragin zituelarik.

DANAK eragindako hondamendiaren ondorioz, Alkatetzak Tokiko Gobernu Batzordeari kaltetuei laguntzeko, Gurutze Gorriari 3.000 €-ko dirulaguntza ematea proposatzen dio.

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, Gurutze Gorriari 3.000 €-ko dirulaguntza ematea onartu du.

Ordainketa 481.03.231.00 partidatik egingo da.

VI.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 19-11-04 zenbakidun esped.: urriaren 1etik etxeko laguntza zerbitzua astean 2,5 orduz handitzea. Onuradunen ekarpena % 15ekoa izango da.
- 22-11-10 zenbakidun esped.: 2024ko irailaren 10etik baja ematea heriotzagatik.
- 24-11-17 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea urriaren 17tik aurrera, astean bost egun eta eguneko bi orduz, laguntza pertsonalerako eta etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.
- 24-11-16 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea urriaren 25etik aurrera, astean hiru egun eta eguneko bi orduz, etxeko lanetan, erosketak egiten... laguntzeko. Onuradunen ekarpena % 2koa izango da.

Gazte laguntzaileentzat bekak.-

Eneko Barandiaran Irastortzari 2024ko abuztuaren 16an hasi eta bi astez, Zanzibar uharteko Jambiani Beach herrian (Tanzania), kooperatzaile bezala egon ondoren eta faktura bidez gastua justifikatu duenez, dirulaguntzaren bigarren zatia, hau da, 1.000 € ematea.

VII.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Jundajo Txaranga Taldeari.-

Jundajo Txaranga Taldearen eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, ordaintzeko falta den %40, hau da 2.000 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2024ko aurrekontuaren 481.02.334.00 partidatik ordainduko da.

VIII.- KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta gazteriako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:

- Aurrekontuetan kirol talde desberdinek urteko ohiko funtzionamendu eta egitasmoak diruz laguntzeko 2024ko maiatzaren 20ko Tokiko Gobernu Batzordean onartutako dirulaguntzen bigarren zatia, hau da, %40, momentu honetan ematea.

Ondorengo da onartu diren dirulaguntzen zerrenda:

Kirol elkarte	Bigarren ordainketa (% 40)
Lazkao Kirol Elkarte	6.400 €
Goierni Gorri Kirol Kluba	2.120 €
Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkarte	800 €
Amalur Mendi Elkarte	1.000 €
Txindoki Atletismo Taldea	680 €
Ordizia Igeriketa Taldea	480 €
ORLOIJ Txirrindularitza Bultzatuz Elkarte	320 €
Ikullu Razing	2.000 €

- Aparteko kirol ekintzen antolakuntzarako, Txindoki Atletismo taldeari II. Atletismo erakustaldia antolatzeagatik 1.891,21 € ematea.

IX.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Merkatariei erosketak bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko urrian martxan jarritako erosketak bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bigarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA	LAGUNTZA
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	180 €	45,00
GERRIKO SL	300 €	75,00
OIHANA VILLAREAL DOMARCO (NAHIKIRI)	1.020 €	255,00
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	315 €	78,75
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	960 €	240,00
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	1.660 €	415,00
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	2.570 €	642,50
PELLO BIDEGAIN (HARATEGIA)	1.395 €	348,75
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	190 €	47,50
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	1.250 €	312,50
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	750 €	187,50
JAUREGI ELEKTRIZITATEA	2.425 €	606,25
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	2.925 €	731,25
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	755 €	188,75
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	3.600 €	900,00
GUZTIRA	20.295	5.073,75

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta erdiak direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.